

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 319/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea 2019/2020 ikasturtean batxilergoko, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdia** Foru Gobernu Kontseiluak, uztailaren 4ko 33/2017 Foru Dekretuaren bidez, ikasle gazte arabarrei garraiorako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen.

Era beran, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2014ko maiatzaren 16an, onespena eman zien unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko gazte ikasleei dirulaguntzak emateko arau orokorre (2014ko maiatzaren 26ko ALHAO, 58. zenbakia).

Bi dirulaguntza horiek xede eta hartzailerak berak dituztela ikusita, uste dugu, aurreko urteetan bezala, egokia dela deialdi bakarra egitea unibertsitatez kanpoko ikasle gazteei dirulaguntzak emateko.

Deialdi honen lehen apartatuan zehazten den moduan, laguntza hauen helburua da beren bizilekua dagoen udalerritik ikastetxe publikoak edo itunduak dauden beste udalerriri batera joan behar duten Arabako ikasleen garraioa ahalbidetzea, batxilergoko ikasketak eta hirugarren apartatuan jasotako erdi eta goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egiteko.

Era berean, lehen apartatu horretan foru sail honek laguntza hauen bidez lortu nahi duen helburua aipatzen da, hau da, ikasleen bizileku aldaketa saihestea eta, horrela, bizi diren herrian eta herrigunean geratzea sustatzea.

Horregatik, Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren eta Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2019/2020 ikasturtean batxilergoko, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan duten diren gazte ikasleei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdia, 25.000 eurokoa, Aldundiaren 2020 aurrekontuaren kontura, bai eta 38.500,00 eurokoa ere, Gazteriaren Foru Erakundearen 2020ko aurrekontuaren kontura. Deialdi hau espedienteari lotuta geratzen da eta foru agindu honen eranskin gisa jasotzen da.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2020. urterako aurrekontuaren kontura emango diren dirulaguntzak, guztira 25.000,00 euro egiten dutenak, "10.2.02.13.01.480.00.01 Garraioa Lurralde Orea" aurrekontu partidaren kontura finantzatuko dira (20.1.20 taldea).

Hirugarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen 2020. urterako aurrekontuaren kontura emango diren dirulaguntzak, guztira 38.500,00 euro egiten dutenak, "71.1.00.10.00.480.00.02 Ikasleentzako dirulaguntzak" aurrekontu partidaren kontura finantzatuko dira (20.1.20 taldea).

Laugarrena. Deialdiari gehienez berrogeita hamar mila euroko kopuru gehigarri bat erantsi ahal izango zaio, beti ere, aurrekontu krediturik baldin badago.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko

Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 14a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA DEL VAL SANCHO**

*Lurralde Orokaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

*Kultura zuzendaria*

**MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE**

**ERANSKINA****2019/2020 ikasturtean batxilergoko, erdi mailako edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin eta bizi diren udalerritik beste udalerriri batera joan behar duten gazte ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia.**

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2014ko maiatzaren 16an, unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko gazte ikasleei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen (ALHAO, 58. zenbakia, 2014ko maiatzaren 26koa).

Halaber, Gobernu Kontseiluak, uztailaren 4ko 33/2017 Foru Dekretuaren bidez, gazte ikasle arabarrei garraiorako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen.

Bi dirulaguntza horien xedea eta hartzaileak bat datozenez, egokitzen jo da unibertsitatez kanpoko gazte ikasleei dirulaguntzak emateko deialdi bakarra egitea.

Adierazitakoarekin bat etorritik, 2019/2020 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten gazte ikasleei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdi hau aipatutako oinarri orokor arautzaileei eta hurrengo apartatuetan ezarritakoari lotuta egongo da.

**1. Deialdiaren xedea**

Laguntza hauen xedea da prestakuntza arautuko ikasketak egitea ahalbidetzea hirugarren apartatuan jasotako batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egiteko bizi diren udalerritik beste batean dauden ikastetxe publiko eta pribatuetara joan diren duten ikasle arabarrei. Horren bidez, ikasleak egoitzaz ez aldatzea eta bizi diren herrian eta herrigunean geratzea lortu nahi da.

**2. Onuradunen betekizunak**

2.1. Oro har, honako hauek izan daitezke tarte orokorreko onuradunak, aurrez eskaera eginda:

- a) 30 urte edo gutxiagoko ikasleak edo eskaeraren urtean 30 urte beteko dituztenak.
- b) 2019ko abenduaren 31n Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudenak.
- c) 2019/2020 ikasturtean hurrengo artikuluan jasotako ikasketetako batean matrikulatuta daudenak.
- d) Eskatzailearen ohiko egoitza eta ikastetxea ezingo dira egon udalerriri berean, eta haien artean ezingo dira egon 150 km baino gehiago.

2.2. Espezifikoki, honako hauek izan daitezke tarte osagarriko onuradunak, aurrez eskaera eginda:

- a) 25 urte edo gutxiagoko ikasleak edo eskaeraren urtean 25 beteko dituztenak.
- b) Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerritan 2019ko abenduaren 31n erroldatuta daudenak.
- c) Eskatzailearen ohiko egoitza eta ikastetxea ezingo dira egon udalerriri berean, eta haien artean ezingo dira egon 65 km baino gehiago.
- d) Garraio txartel ofizial pertsonalizatu baten titular direnak (BAT, BARIK edo MUGI txartelak, adibidez), edo garraio kolektibo itundua erabiltzen dutela frogatzen dutenak.
- e) Ikasturtean zehar ikastetxera egindako joan-etorrien ehuneko 50 garraio txartel publikoa erabiliz egina izan behar da.
- f) Eskola garraio kolektiboa erabiliz gero, kuota guztiak ordaindu direla egiaztatu beharko da nahitaez. Joan-etorri guztietatik astelehenetik ostiralera bitartean egindakoak zenbatuko dira.

2.3. Ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan Eusko Jaurlaritzak ikasturte bakoitzerako joan-etorrietarako eta/edo egoitzarako ematen dituen laguntzak jaso dituzten pertsonak, jasotako beka mota edo modalitatea edozein delarik ere.

### 3. Ikasketak eta ikastaldia

Deialdi honetako laguntzak ikasketa ofizial hauetarako soilik dira:

- Batxilergoa.
- Erdi eta goi mailako lanbide heziketa arautua.
- Lanbide hastapeneterako ikastaro ofizialak.

Bazter uzten dira ikasketa modalitate hauek: beste prestakuntza batzuetarako edo oposizio eta antzekoetarako trebatzeko ikastaroak, ikerketa, graduondoko eta espezializazioko ikasketak eta urrutiko ikasketak.

Dirulaguntzetarako onartuko den aldia irailetik ekainera artekoa da ikasturte bakoitzean. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko da COVID-19k eragindako Osasun Krisia kudeatzeko Alarma Egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua, non adierazten baita bertan behera uzten dela aurrez aurreko hezkuntza, jarduera ikastetxe, ziklo, gradu, ikasturte eta irakaskuntza maila guztietan. Gauzak horrela, joan-etorrien guztizko zenbaketa kalkulatzeko orduan, aurrez aurreko jarduera hori etenda egon den denbora deskontatu beharko da.

### 4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

#### 4.1. Tarte orokorra:

2.1 apartatuan sartzen diren onuradunentzako laguntzen zenbatekoa kopuru finkoa izango da, bizilekua duen herriaren eta ikasleek ikasten duten ikastetxea dagoen herriaren arteko distantziaren arabera kalkulatuta.

- a) 40 km arteko distantzia edo txikiagoa: 200,00 euro
- b) 40 km-tik 80 km-ra arteko distantzia: 280,00 euro
- c) 80 km-tik 150 km-ra arteko distantzia: 400,00 euro.

#### 4.2. Tarte osagarria:

2.2. apartatuan jasotako onuradunentzako laguntzen zenbatekoa aldakorra izango da eta ohiko bizilekua dagoen herritik ikastetxerainoko garraioaren kostuaren arabera zehaztuko da, kalkulu honekin bat etorriz:

- Kalkulu oinarria:

Bizilekua dagoen herritik ikastetxerako joan-etorriaren kostua, bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio erregularren emakida publikoen eta eskariaren arabera garraioaren tarifa ofizialak — ikasturtean aplikatzekoak direnak — aplikatuz kalkulatuta.

Garraio kolektibo itundua erabiliz gero, kontuan izango da garraioaren sustatzaileak egiaztatutako kostua.

- Finantzaletaren ehunekoa haxe izango da:

a) Kalkulu oinarriaren ehuneko 80, onuradunek aurrez aurreko eskola aldian egindako joan-etorrien ehunekoa gutxienez ehuneko 80koa denean.

b) Kalkulu oinarriaren ehuneko 50, onuradunek aurrez aurreko eskola aldian egindako joan-etorrien ehunekoa ehuneko 50etik ehuneko 80ra bitartekoa denean.

– Laguntzaren zenbateko garbia: kalkulu oinarriari finantzaketa ehunekoa aplikatzen lortutako zifrari kenduko zaio tarte orokorrari dagokion laguntzaren zenbatekoa.

#### 4.3. Hainbanaketa

Aurrekontu baliakizunaren zenbatekoa tarteetatik edozeinetako laguntzak finantzatzeko nahikoa ez bada, zenbatekoak saldo horren mugara heldu arte hainbanatuko dira.

4.4. Distantziak zehazteko, <http://maps.google.es> web tresna erabiliko da. Haiek kalkulatzeko, errepideko ibilbiderik laburrena hartuko da kontuan.

### 5. Epea eta eskaeren aurkezpena

5.1. Eskaerak uztailaren 15etik 31ra bitartean aurkeztuko dira, seigarren oinarrian aipatzen diren agiriarekin batera, Gazteriaren Foru Erakundeak emandako eredu normalizatua behar bezala beteta. Bi era daude eskaerak aurkezteko:

- Telematikoki, web orri honetan: <https://gazteria.araba.eus>

- Gazteriaren Foru Erakundearen bulegoetara joanda (Jesusen Zerbitzarien kalea, 5, Gasteiz) 10:00etatik 14:00etara (kontuan hartu behar dira COVID-19 dela-eta hartu diren neurriak), edo itundutako udaletako erregistro orokorretan. Horrek ez du eragozten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan xedatutakoa bete behar izatea.

Eskaeran berriaz adieraziko da jakinarazpenetarako egoitza, eta eskaera aurkezteak esan nahiko du erabat eta berriaz onartzen dela oinarri hauetan ezarritakoa.

5.2. Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun baliorduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela.

5.3. Ikasle bakoitzeko eskaera bat bakarrik aurkeztu ahal izango da.

5.4. Bigarren apartatuan adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikasleak adingabeak direnean, honakoek eskaera aurkeztu eta izenpetu beharko dute: gurasoek, tutoreek edo adingabeen babesaren arloan eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harreraren bidez haien ardura hartu duten pertsonak.

### 6. Agiriak

6.1. Bi tarteetan, oinarriko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Inprimaki normalizatua, zeina Gazteriaren Foru Erakundeak emango baitu, edo web orrian dagoen inprimaki normalizatua.

b) Ikaslearen NANaren fotokopia ikaslea adingabea bada, eskatzailearen NANarena.

c) Ikaslea adingabea bada, familia liburuaren fotokopia.

d) Ikaslea adingabea bada eta harreraren edo tutoretzapean badago, egoera horren frogagiria.

e) Ikaslea 2019ko abenduaren 31n Araban erroldatuta egotearen ziurtagiria.

f) Matrikulazioaren egiaztagiria, ziurtatzeko ikaslea matrikulatuta dagoela hirugarren oinarrian aipatutako ikasketetan, ikasturtean zehar.

g) Beste bekaren bat jaso bada, beka horren egiaztagiria, zenbatekoa eta nork eman duen adierazten dituen.

h) Eskatzailearen titulartasuneko banku libretaren fotokopia edo kontuaren frogagiria.

6.2. Tarte osagarriko, agiri espezifiko hauek aurkeztu beharko dira:

a) Garraio publikoaren txartelaren fotokopia, hala badagokio (ikus 2.2. apartatua).

b) Egindako garraio gastuen eta haien ordainketaren frogagiria. Horri dagokionez, ziurtagiri eta garraio titulu hauek jotzen dira balioduntzat:

I. Garraio txartel ofiziala, hala nola BAT txartela, BARIK edo MUGI, erakunde publiko kudeatzailearen ziurtagiri batekin batera, non ikasturtean egindako joan-etorri guztiak jasota baitaude.

II. Garraio kolektibo itundua erabili bada, guraso edo ikasle elkarteek egindako ziurtagiria. Han, eskatzaileak egin dituen garraio gastu eta ordainketa guztiak eta 2019/2020 ikasturtean garraioaz arduratu den enpresa jaso beharko dira. Gainera, onuradunak ikasleen gurasoen elkarteari egindako ordainketaren justifikazioa aurkeztu beharko da.

c) Hirugarrenen fitxa, behar bezala beteta

## **7. Aurrekontu erabilgarritasuna**

7.1. Tarte orokorra:

Tarte horretarako izendatutako diru zenbatekoa hogeita hemezortzi mila eta bostehun euro (38.500,00) da, Gazteriaren Foru Erakundearen 2020ko aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.8.0.00.02 partidaren kontura.

7.2. Tarte osagarria:

Tarte horri hogeita bost mila euro (25.000,00) esleitu zaizkio, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko "10.2.02 13.01 480.00.01 Lurralde orekako garraioa" partidaren kontura.

7.3. Baldin, laguntzen kalkulua egin ondoren, aurrekontuan dirurik sobera badago bi tartee-tako edozeinetan, zenbateko hori beste tartean erabiliko da.

7.4. Zenbateko gehigarria erantsi ahalko zaio deialdiari, betiere berrogeita hamar mila euro baino gutxiago, baldin eta aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebazpena emateko.

## **8. Ebazpenaren proposamen txostena**

Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Hauek osatuko dute:

• Gazteriaren Foru Erakundearen izenean:

- Idazkaritza Teknikoaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Erakundeko Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Gazteria teknikaria.

• Lurralde Orekaren Saileko Toki Administrazioaren Zerbitzuaren izenean:

- Toki Administrazioaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.
- Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.
- Toki Administrazioiko teknikari legelaria.

Batzorde horrek laguntza emateko bi proposamen txosten idatziko ditu, eta gastuak baimendu, xedatu eta antolatze gaitutako organoak ebatzi egingo du, eskaera emanaz edo ukatuz, gehienez bost (5) hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eskaeran jasotako egoitzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan xedatutako moduen arabera.

Ez da entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileek aurkeztutako egitateak eta agiriak soilik hartuko baitira kontuan ebazpenean.

#### **9. Dirulaguntzak ordaintzea**

Ordainketak izendunak izango dira onuradun bakoitzarentzat.

#### **10. Errekurtsoak**

Honako deialdi honen aurka nahiz haren ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

#### **11. Dirulaguntza galtzea**

Onuradunek galdu egin ditzakete deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

#### **12. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

#### **13. Azken klausula**

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoen Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.